

# **2002/7. FORU-ARAUA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN TRIBUTU-SISTEMA. EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN BEREZITASUNEI EGOKITZEN DUENA**

**(BAO Urriaren 15koa)**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2002.eko urriaren 15ko osoko bilkuran, urriaren 15eko 2002/7, Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen duena, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

URRIAREN 15eko 2002/7. FORU-ARAUA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN TRIBUTU-SISTEMA EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN BEREZITASUNEI EGOKITZEN DUENA

HITZAURREA.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzeko egin behar diren aldaketak egitea da foru arau honen xedea, foru zuzenbide zibil horren erabilera eta sendoketa berma daitezen. Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunak kontuan hartu gabe garatu dira, neurri handi batean, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema osatzen duten arau juridikoak; foru zuzenbide zibila, hala ere, gure lurralde historikoan ezargarria da, eta lurralde forugabeen indarrean dagoen zuzenbide zibiletik ezberdina.

Zerga gehienei dagokienez, eskumen arau-emaile handiagoak bereganatu dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeek, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi, eta Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean indarrean dagoen Ekonomi Itunean xedatutakoarekin bat etorritik. Eskumen horiei esker, gaur egun ahalmen arau-emailea daukagu Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunak aintzat hartu eta zerga-arauak eraldatzeko. Izan ere, lurralde historikoko erakundeek betiere gogoan izan duten helburua da eraldaketa hori, gure lurraldearen eskubide historikoen sendoketa sustatzearen.

Hortaz, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ondarearen gaineko zergan, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergan, ondasun higiezinaren gaineko zergan, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean egin beharreko aldaketak egiten ditu honako foru arau honek, gure foru zuzenbide zibilaren erakunde berezien erabilerak zerga-alorrean dituen ondorioak behar bezala arauturik egon daitezen. Alde batetik, beraz, foru zuzenbide zibileko erakundeok zerga-kontuetan tratamendu desegokia jasotzeagatik bazterturik gera daitezen eragozteko du helburu, eta, bestetik, helburu hori gure zerga-sistemaren oinarritzko printzipioekin bateratzea.

Horrez gain, testamentua egiteko ahalordearen bidezko jarauntsiek, hori erabili bitartean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta ondarearen gaineko zergan daukaten ordainketa-araubide berezia ezartzen du foru arau honek. Figura horrek - taxuera berezikoa eta Kode Zibilaren sisteman guztiz arrotza izanik- eta Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean ezarritako seniparteen sistema eta ondasunen foru

komunikazioaren ezkontza araubide ekonomikoa aplikatzeak arazo ugari sortzen dituzte, aipaturiko zerga biei buruz indarrean dauden arauak aplikatzerakoan. Hori dela eta, haientzako zerga-araubide berezia ezartzea erabaki da, erakundearen berezitasun juridikoa errespetatzeko.

## **I. TITULUA.**

### **ZERGA-ARAUEN EGOKITZAPENA.**

(...)

## **II. TITULUA.**

### **TESTAMENTU-AHALORDEAREN BIDEZKO JARAUNTSIEN.**

#### **ZERGA-ARAU BIDEA, AHALORDEA ERABILI BITARTEAN.**

**9. artikulua.** Arau orokorrak.

1. Titulu honen bidez testamentu-ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren karga aplikatzeko araubide berezia ezarri da

2. Jaraunspenaren kausatzailea hil denean ohiko egoitza Bizkaian eduki badu, Zerga Bizkaiko Foru Aldundiak ordainaraziko du titulu honetako manuak aplikatuz.

**10. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 12.6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenei dagozkien errentei foru arau horretan ezarritako xedapen orokorrak eta araua garatzeko arauzko xedapenak aplikatuko zaizkie, artikuluko honetako hurrengo paragrafoetan biltzen diren berezitasunekin.

2. Zerga honetatik salbuetsita daude testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenetako ondasun edo eskubideak eskualdatuz lortzen diren ondare-irabaziak edo - galerak, baldin eta eskualdaketa horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakar.

Halaber, zerga honetatik salbuetsita daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 37. artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekinak, baldin eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarketa eta erabilera ordeztzen dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, eta eskualdaketa horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakar.

3. Zerga-oinarria zehazteari dagokionez, ekonomi jardueren etekinak testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenen bidez lortutakotzat hartuko dira beti, kontuan hartu gabe Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 24. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako betekizuna betetzen duten ala ez.

4. Oinarri likidagarri orokorra kalkulatzeko, hala badagokio, testamentu-ahalorea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenaren kargura epailearen erabakiz ordaindu den urteko mantenuaren ondoriozko murrizpena soil-soilik aplikatuko zaie zerga-oinarri orokorrari eta aurrezpenaren zerga-oinarriari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 69. eta 71. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzko Legean xedatutakoaren arabera.

5. Zergaren kuota likidua kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 53.8., 90. eta 94. artikuluetan ezarritako kuotakentariak aplikatu ahal izango dira, eta ez besterik.

6. Oinarri likidagarri negatiboak eta kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu ez diren kuota-kenkariak soilik konpentsatu ahal izango dira testamentu-ahalorea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenari dagozkion oinarri likidagarri positiboekin eta kuota oso positiboekin.

7. Testamentu-ahalorea erabiltzearen zain dagoen jaraunspenak zerga ordaindu beharko du, eta, era berean, foru arau honetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauan eta arau hori garatzeko arauzko xedapenetan ezartzen diren gainerako betebeharrak bete beharko ditu

8. Testamentu-ahalorearen erabilera oso eta ezeztazina edo ahalorde hori azkentzeko beste edozein arrazoi abenduaren 31 ez den beste egun batean gertatzen bada, zergaldia egutegiko urtea baino laburragoa izango da. Hala denean, zergaldia egun horretan amaitu eta zerga orduan bertan sortuko da.

#### **11. artikulua.** Betebehar materialak eta erazkoak.

Testamentu-ahalorea baliatzearen zain dauden jaraunspenez ezarritako betebeharrak, erazkoak eta materialak, jaraunspenen administratzaileek bete behar dituzte.

#### **12. artikulua.** Erantzukizuna eta ondasun-lotura.

1. Testamentu-ahalorea baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren administratzailea Zergaren ordainketaren erantzule subsidiarioa izango da

2. Testamentu-ahalorea baliatzearen zain dagoen jaraunspeneko ondasunak eta eskubideak Zerga ordaintzeari lotuko zaizkio, nornahi ere den edukitzailea, ondoko kasuetan izan ezik: erregistro- fede publikoak babestutako hirugarrena izatea edo, ondasunak ezin inskriba daitezkeen ondasun higitzaileak badira, onustean eta titulu justuaren bidez merkataritzako edo industria establezimenduan eskuratu direla frogatzea.

Ondore hauetarako, aurreko idatz-zatian aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketa testamentu-ahalorea modu ezeztazinean guztiz edo partzialki erabiltzearen edo hura iraungitzearen ondoriozkoa bada, notario edo fedemaile publikoek eskuesten dituzten agirietan ohartaraziko dute ondasunak zerga kuota ordaintzeari lotuta daudela, hain zuzen ere eskualdatu aurretik, beraien preskripzioaldian, sortutako zorrak ordaintzeari.

Halaber, jabetzaren erregistratzaileek edo merkataritzakoek alboharrean agerraraziko dute ondasunak zerga kuotak ordaintzeari lotuta daudela, hain zuzen ere eskualdatu aurretik, beraien preskripzioaldian, sortutako zorrak ordaintzeari.

### **13. artikulua.**Atxikitzeke betebeharra.

**1.** Testamentu-ahalorearen bidezko jarauntsiak behartuta daude, ahalordea erabili bitartean, atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak egitera eta dagokien zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldundiari ordaintzera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauetan eta beraiek garatzeko arauzko xedapenetan ezarritako kasu eta eretan.

**2.** Nolanahi ere, testamentu-ahalordea erabili bitartean, ahalorde horren bidezko jarauntsiek foru aldundiari diru-sarrera egiteko betebeharra bereganatuko dute, eta aurreko 1. paragrafoan ezarritako betebeharra ez betetzeak ez ditu salbuetsiko sarrera egiteko betebeharrak honetatik.

### **14. artikulua.** Ondare sozietateen araubidea

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 66. artikuluko 1 paragrafoaren b) letran aurrikusitako betekizunaren ondorenetarako, ez dute ondare sozietateen izaera galduko testamentu-ahalordea erabili gabe dauden jarauntsiek parte hartuta dauden erakundeek, Titulu honetakoa aplikagarri zaienean.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

**Bakarra.**Foru arau hau indarrean jartzen denean, bertan ezarritakoaren kontra dauden xedapen guztiak indargabetuko dira, hala lerrun berekoak nola beheragokoak.

## **AZKEN XEDAPENAK.**

**Lehena.**Indarrean jartzea. Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1az geroztik sortuko ditu ondoreak. Bereziki, testamentu-ahalorearen bidez eratu eta egun horretan ahalordea erabili gabe dauden jarauntsiei aplikatuko zaizkie II. tituluan bildutako arauak.

**Bigarrena.**Arauak emateko ahalmena. Ahalmena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru arau hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.